

Donostia, 2025eko irailaren 18a

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, MANTEOKO IRISGARRITASUNARI ETA MUGIKORTASUNARI BURUZKOA

Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzi Arantza González Garcíak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Manteoko irisgarritasunari eta mugikortasunari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten du, irailaren 15ean Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

GOe-ren inaugurazioa urriaren 20rako dago aurreikusita.

Hala ere, gaur-gaur, oraindik ez dakigu nola eta noiz bermatuko den Udalbatzaren joan den maiatzeko bilkuran auzoko bizilagunek eskatuta aho batez onartu zena: *“manten dezala oinezkoen sarbidea, Nafarroa hiribidea eta Rodil kalea lotzen dituzten egungo eskailerek ahalbidetzen duten moduan, Rodil kalean eta Manteoko zeharbidean bizi diren pertsonen oinezkoen ibilbideak izan ditzaten”*.

GOe eraikitzeak espazio publiko bat galtzea ekarri du, eragozpen handiak sortu dizkie inguruko ikasle eta bizilagunei eta inguru horretan mugikortasuna errazten zuten elementuak galdu dira, hala nola eraitsitako eskailerak.

Udal-gobernua, denbora horretan guztian, gehiago kezkatu da eraikina eraikitzekeo interes pribatuez, herritarren segurtasunaz eta ondasun publikoen babesaz baino.

G0e-ren inaugurazioa "hirirako ekitaldi handi" gisa azalduko da, baina, egiaz, gastronomiaren munduko elite batentzat bakarrik izango da hala.

Aldiz, inguruko bizilagunentzat, balioa eman behar zitzaion eta orain pribatizatuta dagoen espazio publiko baten galera finkatuko da, bai eta haien ziurgabetasuna ere kendutako irisgarritasun-elementuei buruz, ez baitago horien ordezkorik jartzeko ezer zehaztuta, ez eta horretarako datarik jarrita ere.

Hala, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak batzordean erantzun zuen Nafarroa etorbidetik Rodil kalera iristeko kendutako sarbideen alternatibei buruzko azterlan bat lizitaziora aterako dela, eta Manteoko eremu osoaren urbanizazioari begira, urbanizazio-plan bat egiteke dagoela.

Zinegotziak azpimarratu zuen Udal Gobernuak konpromisoa hartu duela Manteorako sarbideak hobetzeko; hala ere, auzoko bizilagunen mobilizazioak eraman du gobernuak konpromiso hori hartzera, baina hori bai, zehaztasunik eta egikaritze-eperik gabe.

Gainera, auzoan hainbat elementu daude, hala nola barandak, zoladura edo beste batzuk, urteetan inolako mantentze-lanik egin ez zaienez, pertsonen segurtasunerako arriskutsuak direnak.

Hori dela eta, haxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio jarduketan egutegia aurkez dezala, hain zuzen ere G0e inauguratu aurretik, joan den maiatzeko Udalbatzan onartutako mozioa betetzen dela bermatzeko: *“manten dezala oinezkoen sarbidea, Nafarroa hiribidea eta Rodil kalea lotzen dituzten egungo eskailerek ahalbidetzen duten moduan, Rodil kalean eta Manteoko zeharbidean bizi diren pertsonen oinezkoen ibilbideak izan ditzaten”*.



Grupo Político ELKARREKIN DONOSTIA Talde Politikoa

Ijentea, 1, 20003 Donostia / San Sebastián

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Manteo auzoan mantentze-lanak egin ditzala, pertsonen segurtasuna bermatzeko.
-

Arantza González García
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia